## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO DEPARTAMENTUA

*Garapenerako lankidetza sustatzen duten jardueretarako diru laguntzen 2009ko deialdiaren ebazpena.*

Departamentuko foru diputatuak ondoko foru agindua eman du gaur:

Diputatuen Kontseiluak, 2009ko maiatzaren 26an egindako batzarraldian, garapenerako lankidetza sustatzen duten jardueretarako diru laguntzak emateko oinarriak onartu zituen, eranskinetan jasotako lau helburu ezberdinekin. Erabaki berean diru laguntza horien 2009ko deialdia onartu zen eta 4.339.873,00 euroko gastua egiteko baimena eman zen, ondoko moduan banatuta:

— I. eranskina. Hegoaldeko komunitateetan toki garapeneko proiektuak egiteko diru laguntzak: 3.339.873,00 euro.

— II. eranskina. Sentsibilizazioaren, prestakuntzaren, eragin politikoaren, ikerketaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko proiektuetarako diru laguntzak: 700.000,00 euro.

— III. eranskina. Ekimen edo ekintza puntualetarako diru laguntzak: 100.000,00 euro.

— IV. eranskina. Larrialdiko laguntzak: 200.000,00 euro.

Aipatutako erabakiaren 9.2 oinarrian ezartzen denez, eskaerak laguntzen kudeaketarako erakunde laguntzaileari igorriko zaizkio eta hark balorazio txostena egingo du. Txosten hori Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan. Oinarri horretan bertan ezarritakoaren arabera, Batzorde Ebaluatzaileko kide izango dira Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko zuzendari nagusia (lehendakari izango da); Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko zerbitzuburua; Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuko teknikari bat; eta Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko idazkari teknikoa (batzordeko idazkari gisa).

I, II eta III. eranskinetako (horien diru laguntzak emateko lehiakortasun prozedura izango da) eskaerak aurkezteko epea amaituta, aipatutako erakunde laguntzaileak eskaerak aztertu eta horiei dagokien txostena egin du, eskaeren xedea diru laguntzak eman eta kopuruak zehazteko irizpideekin bat datorrela egiaztatuz.

Txosten hori lehen aipatutako ebaluazio batzordearen irizpenaren menpe jarri da eta Batzordeak 2009ko abuztuaren 7ko bilkuran bere egin du, ondorio horietarako egin den aktan agertzen den bezala. Ondoren, diru laguntzak emateko prozeduraren ebazpen proposamena igorri dio Batzordeak Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatu honi.

Aipatutako txostenean, horren ondorioz emandako ebazpen proposamenean eta foru agindu honetan deialdian ezetsitako eskaeren zerrenda jasotzen da.

Erabakiaren 10.1 oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz, foru diputatu honi dagokio deialdia erabakitzeko eskumena.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE DEPORTES Y ACCION EXTERIOR

*Resolución de la convocatoria 2009 de subvenciones para la cooperación al desarrollo.*

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

El Consejo de Diputados, en sesión celebrada el 26 de mayo de 2009, aprobó las Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la cooperación al desarrollo, con cuatro destinos diferentes, recogidos en sendos anexos. En el mismo Acuerdo se aprobó la convocatoria de dichas subvenciones para el ejercicio 2009, autorizándose para las mismas un gasto de 4.339.873,00 euros, según la siguiente distribución:

— Anexo I. Subvenciones para proyectos de desarrollo local en las comunidades del Sur: 3.339.873,00 euros.

— Anexo II. Subvenciones para proyectos de sensibilización, formación, incidencia política, investigación y educación al desarrollo: 700.000,00 euros.

— Anexo III. Subvenciones para iniciativas o acciones puntuales: 100.000,00 euros.

— Anexo IV. Ayudas de emergencia: 200.000,00 euros.

En la base 9.ª2 del referido acuerdo se establece que las solicitudes serán remitidas a la entidad colaboradora en la gestión de estas subvenciones, la cual elaborará un informe de valoración de las mismas, informe que será sometido a la Comisión Evaluadora que, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y será elevada al órgano competente para su aprobación. Se establece asimismo que formarán parte de la Comisión Evaluadora la directora general de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, que presidirá la misma; la jefa de servicio de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad; un técnico o una técnica del Servicio de Intervención y Auditoría del Departamento de Hacienda y Finanzas; y el secretario técnico del Departamento de Deportes y Acción Exterior, este último en calidad de secretario de la comisión.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes de los Anexos I, II y III (cuyo procedimiento de concesión es el de concurrencia competitiva), la entidad colaboradora citada ha analizado las mismas y emitido el informe correspondiente, en el que contrasta el objeto de las solicitudes con los criterios de concesión y cuantificación de estas subvenciones.

Este informe ha sido sometido a la Comisión Evaluadora a la que se ha hecho mención anteriormente, la cual, reunida el día 7 de agosto de 2009, haciendo suyo el citado informe, según el acta levantada al efecto, ha elevado propuesta de resolución del procedimiento de concesión de las subvenciones a este diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior.

El informe citado y la propuesta de resolución que del mismo se deriva y se traslada a esta orden foral contemplan, asimismo, la relación de solicitudes desestimadas en la presente convocatoria.

De conformidad con lo dispuesto en la base general 10.ª1, corresponde a este diputado foral la competencia para la resolución de la convocatoria.

Diru laguntzen zenbatekoa I, II eta III. eranskinetako 4.2 atalean ezarritakoaren arabera ezarri da, baina hiru kasuetan eranskin bakoitzeko 4.2.3 atalean aurreikusitako aukera gauzatu da; horren arabera, onartu beharreko diru laguntzak murriztu ahal izango dira portzentaje jakin batean, guztientzat berdina, aukeratutako proiektuen artean beste bat sartu nahi denean, eta aurrekontuan esleitutako zenbatekoak soilik zati batean erantzun diezaiokeenean.

Diru laguntzen ordainketa 13. oinarri orokorrean ezarritako moduan egingo da.

Bestalde, 10.2 oinarri orokorrak eta 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Zuzenbide Arauei eta Administrazio Jardunbide Arruntari buruzkoak, 59.6.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, deialdi honen ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitarapen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat ulertuko da lege ondorio guztietarako, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da diru laguntzei publizitatea emateko obligazioa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren 17.1 artikuluak ezarritakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuak,

EBATZI DU

*Lehenengo.* Jarraian adierazten diren diru laguntzak ematea eta ordaintzea, garapenerako lankidetza proiektuak egiteko (2009ko maiatzaren 26ko Erabakia; 2009ko deialdia).

*I. Eranskina: Hegoaldeko komunitateetan toki garapeneko proiektuak egiteko diru laguntzak:*

El importe de las subvenciones se ha establecido conforme a lo previsto en el apartado 4.2 de los Anexos I a III, habiéndose hecho uso en los tres casos de la posibilidad prevista en el apartado 4.2.3 de cada anexo, que establece que las subvenciones a aprobar podrán ser minoradas en un porcentaje idéntico para todas ellas, para permitir incluir entre los proyectos seleccionados uno último para el que la consignación presupuestaria disponible sólo alcance su cobertura parcial.

El abono de las subvenciones se efectuará conforme a lo dispuesto en la base general 13.ª

Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en la base general 10.ª2 y en el artículo 59.6.b) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior,

RESUELVE

*Primero.* Conceder y abonar las subvenciones que se indican a continuación, para la realización de proyectos de cooperación al desarrollo (Acuerdo de 26 de mayo de 2009; convocatoria 2009).

*Anexo I: Subvenciones para proyectos de desarrollo local en las comunidades del Sur:*

| *Erakunde onuraduna/ Entidad beneficiaria* | *Lagundutako proiektua/k / Proyecto/s subvencionado/s* | *Emandakoa / Concesión* | *Ordainketa / Abono* |
|---|---|---|---|
| Alboan | Emakume alargunen antolakuntza sendotzea (India)<br>Fortalecimiento de la organización de mujeres viudas (India) | 126.885,00 € | 88.974,65 € |
| Cruz Roja | Amazoniako emakume indigenen giza eskubideak (Peru)<br>Derechos Humanos de las mujeres indígenas amazónicas (Perú) | 141.298,00 € | 99.081,37 € |
| Euskadi Cuba | Nekazaritza eta abeltzaintza kooperatibak sendotzea (Kuba)<br>Fortalecimiento de cooperativas agropecuarias (Cuba) | 130.044,00 € | 91.189,81 € |
| Euskadi Cuba | Generoaren Gizarte Behatokia sendotzea (Kuba)<br>Fortalecimiento del Observatorio Social de Género (Cuba) | 32.681,00 € | 22.916,65 € |
| FISC | Diru sarrera handiagoak eta enplegua sortuz (Peru)<br>Generando mejores ingresos y empleo (Perú) | 143.173,00 € | 100.396,16 € |
| FISC | Estatu krimenen biktimak indartzea (Kolonbia)<br>Fortalecimiento de las víctimas de crímenes de Estado (Colombia) | 142.215,00 € | 99.724,39 € |
| Fundación Mundubat | Emakumeen eskola alternatiboa Chiapas-en (Mexiko)<br>Escuela alternativa de mujeres en Chiapas (México) | 131.221,00 € | 92.015,15 € |
| Haurralde | Emakumeen mutilazio genitala prebenitzea eta desagerraraztea (Nigeria)<br>Prevención y erradicación de la mutilación genital femenina (Nigeria) | 77.777,00 € | 54.539,00 € |
| Haurralde | Politikarako gaitasuna eta lidergoa sendotzea (Bolivia)<br>Fortalecimiento de las capacidades políticas y de liderazgo (Bolivia) | 99.013,00 € | 69.430,17 € |
| Intered | Emakumeen lidergoen prestakuntzako eskola deszentralizatua (Peru)<br>Escuela descentralizada de formación de liderazgos femeninos (Perú) | 142.547,00 € | 99.957,20 € |

| *Erakunde onuraduna/ Entidad beneficiaria* | *Lagundutako proiektua/k / Proyecto/s subvencionado/s* | *Emandakoa / Concesión* | *Ordainketa / Abono* |
|---|---|---|---|
| Intermon Oxfam | Emakumeak eta gizonezkoak lan bat edukitzeko eskubidea gauzatuz (Peru)<br>Mujeres y hombres ejercen su derecho a un trabajo (Perú) | 126.668,00 € | 88.822,48 € |
| Izan | Gazteen eskubideak sustatzea, genero ikuspegiarekin (El Salvador)<br>Promoción de los derechos de la juventud con enfoque de género (El Salvador) | 89.210,00 € | 62.556,08 € |
| Izan | Harrera etxe bat handitzea eta haren ekipamendua (Bolivia)<br>Ampliación y equipamiento de una Casa de acogida (Bolivia) | 110.485,00 € | 77.474,59 € |
| Manos Unidas | Genero indarkeriaren aurreko atentzio integrala (Honduras)<br>Atención integral a la problemática de la violencia de género (Honduras) | 47.931,00 € | 33.610,31 € |
| Mugarik Gabe | Emakumeen eta feminismoaren mugimendua sendotzea (Guatemala)<br>Fortalecimiento del movimiento de mujeres y feminista (Guatemala) | 142.522,00 € | 99.939,67 € |
| Mugarik Gabe | Erakunde indigenak sendotzea (Guatemala)<br>Fortaleciendo organizaciones indígenas (Guatemala) | 132.088,00 € | 92.623,11 € |
| Mugen Gainetik | Genero indarkeriaren prebentzioa eta atentzioa (El Salvador)<br>Prevención y atención a la violencia de género (El Salvador) | 140.722,00 € | 98.677,47 € |
| Mugen Gainetik | Giza eskubideen defendatzaileak zaintzeko eta babesteko ekintzak (Guatemala)<br>Acciones para la defensa y protección de defensores/as de DDHH (Guatemala) | 105.622,00 € | 74.064,55 € |
| Paz y Solidaridad | Antolakuntza, teknika eta politika arloetan sendotzea (Guatemala)<br>Fortalecimiento organizativo, técnico y político (Guatemala) | 142.772,00 € | 100.114,97 € |
| Paz y Solidaridad | Ekoizpen baliabideetarako sarbidea eta haien kontrola, genero berdintasunean (Ekuador)<br>Acceso y control de los recursos productivos con equidad de género (Ecuador) | 143.205,00 € | 100.418,60 € |
| Proclade | Hiritar aktiboak sortzea (El Salvador)<br>Construcción de ciudadanía activa (El Salvador) | 143.205,00 € | 100.418,60 € |
| Proclade | Komunitate turismoa: garapen alternatiba (Ekuador)<br>Turismo Comunitario: una alternativa de desarrollo (Ecuador) | 141.512,00 € | 99.231,43 € |
| Rokpa | Lehen eta bigarren hezkuntzako eskola (Tibet)<br>Escuela primaria y secundaria (Tíbet) | 27.155,00 € | 19.041,70 € |
| Setem Hego Haizea | Memoriak berreskuratzea, indarkeriarik gabe bizitzeko (Kolonbia)<br>Recuperando memorias para vivir sin violencia (Colombia) | 141.617,00 € | 99.305,06 € |
| Setem Hego Haizea | Kooperatiba eta emakumeen kolektiboak sendotzea (Mexiko)<br>Fortalecimiento de la cooperativa y colectivos de mujeres (México) | 71.676,00 € | 50.260,84 € |
| Solidaridad Internacional | Herritarren partehartzea sendotzea (Nikaragua)<br>Fortalecimiento de la participación ciudadana (Nicaragua) | 128.865,00 € | 90.363,07 € |
| Tau | Emakumeen kooperatiba sustatzea (Maroko)<br>Promoción de una cooperativa de mujeres (Marruecos) | 93.056,00 € | 65.252,98 € |
| Taupadak | Ekoturismoa emakumeen ahalduntzerako (Bolivia)<br>Ecoturismo para el empoderamiento de las mujeres (Bolivia) | 114.842,00 € | 80.529,81 € |
| Zabalketa | Balio demokratikoak sustatzea (Filipinak)<br>Promoción de los valores democráticos (Filipinas) | 129.812,00 € | 91.027,13 € |
| | **Guztira / Total** | **3.339.819,00 €** | **2.341.957,00 €** |

*II. Eranskina: Sentsibilizazioaren, prestakuntzaren, eragin politikoaren, ikerketaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko proiektuetarako diru laguntzak:*

*Anexo II: Subvenciones para proyectos de sensibilización, formación, incidencia política, investigación y educación al desarrollo:*

| *Erakunde onuraduna/ Entidad beneficiaria* | *Lagundutako proiektua/k / Proyecto/s subvencionado/s* | *Emandakoa / Concesión* | *Ordainketa / Abono* |
|---|---|---|---|
| Birbana | Gizon berriak sortuz GGKEetan<br>Generando hombres nuevos en las ONGDs | 55.514,35 € | 38.521,41 € |
| Calcuta Ondoan | XXI. mendeko India eztabaidagai: begira bat giza eskubideei, genero arloari eta garapenari<br>La India del S. XXI a debate: una mirada a los DDHH, género y desarrollo | 16.940,25 € | 11.754,84 € |
| Emaus | Gipuzkoako administrazioak eta sektore publikoaren erosketa arduratsua<br>Las administraciones guipuzcoanas y la compra pública responsable | 67.003,90 € | 46.494,01 € |
| Emaus | Tokiko kontsumo eta ekoizpen iraunkorra<br>Consumo y producción local sostenible | 52.257,08 € | 36.261,19 € |
| FISC | Irrati programa eta aldizkaria "*Hitza dugu*"<br>Programa de radio y revista "*Hitza dugu*" | 60.436,20 € | 41.936,68 € |
| Fundación Mundubat | Emakumeen giza eskubideak<br>Derechos Humanos de las mujeres | 65.961,29 € | 45.770,54 € |
| Haurralde | Sexu eta hazkuntza osasunaren arloan sentsibilizatzea eta trebatzea<br>Sensibilización y capacitación en salud sexual y reproductiva | 73.976,54 € | 51.332,32 € |
| Intered | Jolas kooperatiboen baliabide zentroa<br>Centro de recursos en juegos cooperativos | 73.939,55 € | 51.306,65 € |
| Medicus Mundi | Geldiarazi dezagun malaria orain!<br>¡Paremos la malaria ahora! | 32.917,42 € | 22.841,40 € |
| Mugen Gainetik | Emakume liderren topaketa<br>Encuentro con mujeres líderes | 24.172,65 € | 16.773,40 € |
| Mundukide | Kooperatiba inguruaren sentsibilizazioa<br>Sensibilización del entorno cooperativo | 32.596,86 € | 22.618,96 € |
| Proclade | Tarpuy, bidezko merkataritza hedatuz?<br>Tarpuy, sembrando comercio justo | 16.452,63 € | 11.416,48 € |
| Setem Hego Haizea | Kontsumo arduratsua (III. fasea)<br>Consumo responsable (Fase III) | 46.853,56 € | 32.511,69 € |
| UNICEF | Umeen eskubideak<br>Derechos de la Infancia | 7.024,14 € | 4.874,05 € |
| Veterinarios Sin Fronteras | Elikagaien burujabetza<br>Soberanía alimentaria | 73.953,58 € | 51.316,38 € |
| | **Guztira / Total** | **700.000,00 €** | **485.730,00 €** |

*III. Eranskina: Ekimen edo ekintza puntualetarako diru laguntzak:*

*Anexo III: Subvenciones para iniciativas o acciones puntuales:*

| *Erakunde onuraduna/ Entidad beneficiaria* | *Lagundutako proiektua/k / Proyecto/s subvencionado/s* | *Emandakoa eta ordainketa/ Concesión y abono* |
|---|---|---|
| Asociación Cultural Tibetana Atisha | Ume ezinduentzako zentroa (India)<br>Centro para niños/as discapacitados (India) | 15.077,28 € |
| Asociación Intercultural Adiskidetuak | Indarkeriaren prebentziorako programa (Ekuador)<br>Programa para la prevención de la violencia (Ecuador) | 15.077,28 € |
| Asociación Juvenil Gaztedi Berria | Amazoniako erriberetako herri indigenentzako osasun laguntza (Peru)<br>Ayuda sanitaria para pueblos ribereños indígenas de la Amazonía (Perú) | 13.314,04 € |
| Harreman | Bidezko merkataritza jarduerak praktikatu eta hedatzea<br>Práctica y divulgación de actividades de Comercio Justo | 5.017,38 € |
| Hermansoloña | Behartsuentzako zentroetako dinamizatzaileak "Contygo" taldea (Argentina)<br>Dinamizadores centros carenciados grupo "Contygo" (Argentina) | 8.795,08 € |
| Nubi Elkartea | Martir Cherief zentroko biktima sahararrentzako material horniketa (Sahara)<br>Suministro de material para víctimas saharauis del centro Martir Cherief (Sáhara) | 8.376,25 € |
| Rokpa | Yushu eskola<br>La Escuela de Yushu | 5.025,76 € |
| SOS Balkanes | "La Flor Azul" parkea berreraikitzea. II. fasea (Bosnia)<br>Reconstrucción del parque "La Flor Azul". Fase II (Bosnia) | 15.077,28 € |
| SOS Balkanes | Bortxaketak eta sexu gehiegikeriak gerra estrategia gisa (Bosnia)<br>Violaciones y abusos sexuales como estrategia de guerra (Bosnia) | 14.239,65 € |
| | **Guztira / Total** | **100.000,00 €** |

*Bigarren.* Ezestea jarraian adierazitako eskaerak, diru laguntza jasoko duten proiektuak baino balorazio txikiagoa izan dutelako:

*I. Eranskina: Hegoaldeko komunitateetan toki garapeneko proiektuak egiteko diru laguntzak:*

*Segundo.* Desestimar las solicitudes que se indican a continuación, por haber obtenido una valoración inferior a la de los proyectos que reciben subvención:

*Anexo I. Subvenciones para proyectos de desarrollo local en las comunidades del Sur:*

| *Entitate eskatzailea / Entidad solicitante* | *Proiektua/k / Proyecto/s* |
|---|---|
| Adeco | Heziketa materiala sortzea (Peru)<br>Creación de material educativo (Perú) |
| Adeco | Umeen eta nerabeen eskubideak sustatzea (Peru)<br>Promoción de derechos de los niños, niñas y adolescentes (Perú) |
| Adsis | Construcción participativa de la seguridad alimentaria (Perú)<br>Construcción participativa de la seguridad alimentaria (Perú) |
| Alboan | Ekoizpena garatzea eta antolakuntza sendotzea (Peru)<br>Desarrollo productivo y fortalecimiento organizativo (Perú) |
| Asamblea de Cooperación por la Paz | Elikadura segurtasunaren baldintzak hobetzea (Mauritania)<br>Mejora de las condiciones de seguridad alimentaria (Mauritania) |
| Asociación Desarrollo Foro Rural Mundial | Dediapadako kontsumo kooperatiba elkartea sendotzea (India)<br>Fortalecimiento de la sociedad cooperativa de consumo de Dediapada (India) |
| Asociación Desarrollo Foro Rural Mundial | Landa familiaren eta emakume arrantzaleen garapena (Uruguay)<br>Desarrollo de la familia rural y de las pescadoras (Uruguay) |

| *Entitate eskatzailea / Entidad solicitante* | *Proiektua/k / Proyecto/s* |
|---|---|
| Ayuda en Acción | Kafe ekoizpena sendotzea eta merkaturatzea (Honduras)<br>Fortaleciendo producción y comercialización de café (Honduras) |
| Ayuda en Acción | Higiene eta osasun baldintzak hobetzea (Peru)<br>Mejoramiento de las condiciones de higiene y salubridad (Perú) |
| Behar Bidasoa | Eguzki panelak eta sukaldeak instalatzea (Ruanda)<br>Instalación de paneles y cocinas solares (Ruanda) |
| Bideratu | Lankidetza gazte atzerritarren komunitateetan (Maroko)<br>Cooperación en las comunidades de jóvenes extranjeros (Marruecos) |
| Caritas | Gazteen hezkuntza eskumenak garatzea (El Salvador)<br>Desarrollo de competencias educativas de las/os jóvenes (El Salvador) |
| Caritas | Emakume taldeak sendotzea (Mexiko)<br>Fortalecimiento de las organizaciones de mujeres (México) |
| Cruz Roja | Esne ekoizpena hobetzea, elikadura segurtasun gisa<br>Mejoramiento de la producción lechera como seguridad alimentaria (Ecuador) |
| Emaus | Eskola ibiltaria emakume indigenentzat eta landa ingurukoentzat.<br>Escuela itinerante para mujeres rurales e indígenas (Chile) |
| Emaus | Bidezko merkataritza sustatzea. I. fasea (Egipto)<br>Promoción del comercio justo. I Fase (Egipto) |
| Euskadiko Lagunak Beti Lanean Ekuadorren Alde | Estolderia eraikitzea. III. etapa (Ekuador)<br>Construcción de alcantarillado. III Etapa (Ecuador) |
| Fundación Jóvenes y Desarrollo | Baliabide gutxi dituzten gazteentzako heziketa (Zentroafrikako Errepublika)<br>Educación para jóvenes con escasos recursos (República Centroafricana) |
| Fundación Jóvenes y Desarrollo | Lanbide heziketa, enpresarien eskariari egokituta (Vietnam)<br>Formación profesional adaptada a la demanda empresarial (Vietnam) |
| Fundación Madreselva | Bizitza duinagoa izateko laborategia (Mozambike)<br>Laboratorio para una vida más digna (Mozambique) |
| Fundación Mundubat | Nekazarien antolaketa eta partehartzea sendotzea (Mozambike)<br>Fortalecimiento organizativo y participativo del campesinado (Mozambique) |
| Garabide Elkartea | Prestakuntza, ikerketa eta laguntza teknikoa (Bolivia)<br>Formación, investigación y asistencia técnica (Bolivia) |
| Garabide Elkartea | Euskalgintza modernoaren ibilbidea: Euskara Mundua (Euskal Herria) |
| Hermansoloña | Nazaret San Jose zuhurra (Argentina)<br>Nazaret San José providente (Argentina) |
| Honek | Arrisku egoeran dauden ume eta nerabeen zaintza (Nikaragua)<br>Atención a la niñez y adolescencia en situación de riesgo (Nicaragua) |
| Ingeniería para la Cooperación | Lan munduan sartzeko estrategia (Bolivia)<br>Estrategia para la inserción laboral (Bolivia) |
| Ingeniería para la Cooperación | Gizakiaren garapen integrala laguntzea (Benin)<br>Contribuir al Desarrollo Humano Integral (Benin) |
| Intered | Nekazari taldeen parte hartze aktiboa (Kongoko Errepublika Demokratikoa)<br>Participación activa de organizaciones campesinas (República Democrática del Congo) |
| Intermon Oxfam | Herritarren parte hartzea deszentralizazio prozesuan (Nikaragua)<br>Participación ciudadana en el proceso de descentralización (Nicaragua) |
| Itaka | Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea hobetzea (Dominikar Errepublika)<br>Mejora de la calidad educativa y formativa (República Dominicana) |
| Itaka | Gizartetik baztertutako gazteen eta adingabeen atentzio integrala (Brasil)<br>Atención integral a jóvenes y menores en exclusión social (Brasil) |
| Medicus Mundi | Osasun integrala (Etiopia)<br>Salud Integral (Etiopía) |
| Misiones Diocesanas | Ekografoa (Ekuador)<br>Ecógrafo (Ecuador) |

| *Entitate eskatzailea / Entidad solicitante* | *Proiektua/k / Proyecto/s* |
|---|---|
| Mundukide | MSTko gizarte enpresak sendotzea (Brasil)<br>Fortalecimiento de las empresas sociales del MST (Brasil) |
| Pausu Media | Emakumeentzako eskola irratia (Brasil)<br>Radio escuela para la ciudadanía de las mujeres (Brasil) |
| Prosalus | Elikagaiak izateko eta erabiltzeko baldintzak hobetzea (Peru)<br>Mejora de las condiciones de acceso y uso de alimentos (Perú) |
| Proyde-Proega | Kalitatezko hezkuntza sustatzea, genero ikuspegiarekin (Madagaskar)<br>Promoción educativa de calidad con enfoque de género (Madagascar) |
| SERSO Euskal Herria | Akurien produkzio katea hobetzea (Peru)<br>Mejoramiento de la cadena productiva de cuyes (Perú) |
| SODEPAZ | Elikagaiak ekoizteko gaitasuna handitzea (Kuba)<br>Incremento de las capacidades productivas de alimentos (Cuba) |
| Solidaridad Internacional | Emakume arabiarraren ahalduntzea,heziketaren bitartez (Jordania)<br>Empoderamiento de la mujer árabe a través de la formación (Jordania) |
| SOTERMUN | Oinarrizko osasun zentroa eta formazio sindikaleko zentroa (Bolivia)<br>Centro de salud básica y centro de formación sindical (Bolivia) |
| UNICEF | Izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea umeentzat (Nikaragua)<br>Derecho a un nombre y una nacionalidad de niñas y niños (Nicaragua) |
| Wadna Sahara Herriarekin | Aaiungo baratzak (Sahara)<br>Huertas de El Aaiún (Sahara) |

*II. Eranskina: Sentsibilizazioaren, prestakuntzaren, eragin politikoaren, ikerketaren eta garapenerako hezkuntzaren arloko proiektuetarako diru laguntzak:*

*Anexo II: Subvenciones para proyectos de sensibilización, formación, incidencia política, investigación y educación al desarrollo:*

| *Entitate eskatzailea / Entidad solicitante* | *Proiektua/k / Proyecto/s* |
|---|---|
| Adsis | Gazteak eta kulturartekotasuna<br>Jóvenes e interculturalidad |
| Fuden | Gipuzkoako eskola umeen sentsibilizazioa<br>Sensibilización de la población escolar de Gipuzkoa |
| Haurralde | Garapenerako eta lankidetzarako heziketa<br>Educación para el desarrollo y cooperación |
| Jatorkin | Hango eta hemengo kulturak: hegoaldera hurbilduz<br>Culturas de allí y de aquí: acercándonos al Sur |
| Sodepaz | Okupazioa eta erresistentzia Palestinak: kontzientziatzea elkartasunerako<br>Ocupación y resistencia en Palestina: concienciar para la solidaridad |
| Solidaridad Internacional | Erantzukizuna eta konpromisoa: milurtekoaren garapen helburuak<br>Responsabilidad y compromiso: los objetivos de desarrollo del milenio |

*III. Eranskina: Ekimen edo ekintza puntualetarako diru laguntzak:*

*Anexo III: Subvenciones para iniciativas o acciones puntuales:*

| *Entitate eskatzailea / Entidad solicitante* | *Proiektua/k / Proyecto/s* |
|---|---|
| Asociación Cultural Tibetana Atisha | Pondako emakumeen heziketa zentroa (India)<br>Centro de educación femenino de Ponda (India) |
| Basque Know How | Kaleko umeak (Mexiko)<br>Niños de la calle (México) |
| Bidez Bide | Bidez Bide Guatemalan<br>Bidez Bide en Guatemala |
| Bidez Bide | Gizarte salmentak (Guatemala)<br>Ventas Sociales (Guatemala) |
| Elkartasun Haziak | Eskola eta gizarte eta heziketa zentroa Ikunde-rentzat (Ekuatore Ginea)<br>Escuela y centro socio-educativo para Ikunde (Guinea Ecuatorial) |
| Garabide Elkartea | Mapudungun hizkuntza berreskuratzeko prestakuntza eta laguntza teknikoa (Txile)<br>Formación y asistencia técnica para la recuperación del mapuzungun (Chile) |
| Helduak | Bide berriak (Ekuador)<br>Nuevos horizontes (Ecuador) |
| Hiruatx | Kichwa herriko sektore ekonomiko eta produktiboa sendotzea (Ekuador)<br>Fortalecimiento del sector económico-productivo del pueblo Kichwa (Ecuador) |
| Lanki | Ingurumen iraunkortasunaren eta ekonomia solidarioaren inguruko mintegia<br>Seminario sobre sostenibilidad medioambiental y economía solidaria |

*Hirugarren.* Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2009ko irailaren 15a.—Ramón Martiarena Bergaretxe, idazkari teknikoa. (11328)

*Tercero.* Ordenar la publicación de la presente orden foral en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra la misma recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime pertinente.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Donostia-San Sebastián, a 15 de setiembre de 2009.—El secretario técnico, Ramón Martiarena Bergaretxe. (11328)